

Kasu-marken erabilera izen-koordinazioan

Euskal idazle klasikoen azterketa,
gaurko erabilera eta zenbait proposamen

ALES BENGOTXEA

0. Sarrera

Artikulu honetan, hainbat aldiz agertuko da izen-koordinazioaren aipamena. Komeni izanen da, gaian bete-betean sartu baino lehen, izen-koordinazioaren kontzeptua, zeregin honetarako bederen, zer-nola definitzen dudan zehaztea. Hasteko, izen kategoria gramatikala hartuko dut oinarri, izenekin osatzen baita, gehien-gehienetan, hemen aipu dugun koordinazioa, nahiz eta, izenez gainera, bestelako kategoriak ere koordinaturik joan ohi diren. Bigarrenik, koordinazioa aipatzen denean, kasu-marka jakin bat hartzen duen elementu-andana batez, enumerazio batez, arituko naiz, eta azpimarratu behar da kasu-marken erabilerari dagokiola azterketa hau eta ez posposizioen erabilerari, hauek labaingarriagoak izanik, hemen aztertuko ez direlako¹. Hiru elementu edo gehiago dituzten izen-andanak aztertuko dira hemen, xeheago ikusiko denez. Izan ere, badirudi bi elementudun izen-andanetan,

hemen adieraziko den arau-suerte honek ez duela indar bertsuarekin agintzen, eta, beraz, alde batera utzi da bi elementuko izen-koordinazioa, berariazko azterketa bat eskatzen duela iruditzen baitzait eta gaia oraingo nire asmoez kanpora dagoela irizten diodako. Susmoa dut, hala ere, *zeru-lurrak* moduko izen elkartuetarik hurbilago dagoelako edo duela jokaera berezia bi elementuko izen-andanak.

Koordinaturik doazen izen-andanetan zer elementuk hartu behar duen kasu-marka da, funtsean, ikerketa txiki honen helburua. Hau da, onespén zabala du(ke)ten testuen argitan, idatzi litezke elementu koordinatu batzuk kasu-marka dutela eta beste batzuk markarik gabe? Aski da azken elementua bakarrik kasu-markaz idaztea ala denek behar dute kasu-marka? Horiek argitzen saiatuko naiz hemen.

Ikerketak corpus handi samarra behar duenez, izen-koordinazioaz gehien baliatu diren idazleak agertuko zaizkigu behin eta be-

1. Gaur egun kasu-marka direnak aztertu ditut, hauetarik zenbait lehen posposizio izanak direla pentsatzen bada ere.

rriz. Ikusiko da idazle batzuen adibideak maizago agertuko direla beste batzuenak baino. Batetik, erran behar da idazle guztiek ez dutela joera bera izen-koordinazioaren kontu honetan. Badira batzuk baliabide hau behin eta berriz erabiltzen dutenak, berezko idazkera hala dutelako, edo erdarazko testu bat itzuli baitute, ezinbestean baliatu beharra zutelako. Beste batzuek, berriz, behar-beharrezkoa denean baizik ez dute erabiliko. Ikusiko da Mendiburu dela adibideetan gehien aipatuko dudana idazleetarik. Eta hala da, lehenbiziko, izen-koordinazioaz maiz baliatzen zelako eta, bigarrenik, baliabide hori ongi sistematizatua zuelako. Beste hainbat adibide ere emanen dira, beste egile batzuenak, honetan urriagoak diren arren, ikus dadin ez dabilela egile bakoitza bere bidean. Izen-koordinazioa gutitan baliatzen duten idazleen kasuan dudazkoago da adibideon balioa, gerta baitaiteke, inprenta-hutsak edo kopia-egilearen hutsak direla medio, gu ondorio okerretara iristea. Horregatik, tentu handiz erabiliko dira horiek, eta batik bat beste idazleen testuetan ageri diren adibideen sendogarri.

Gerta liteke teorizazio-saio hau gehiegizkoa iruditzea bati baino gehiagori. Eta bali-teke hala izatea, baina emaitzaren ustezko handitasunaren bila ez ibilki, berdin dio honen probetxua xume izanik ere. Honetan ere ez dadila gerta harako euskal idazle lotsa gutxiko hari gertatzen zitzaiona: erran baitzuen hark bere euskararen tatxak ez zizkioleta berari egotzi behar, euskarari berari baizik, eta horren aitzakian deus ez axola zuen hark legea. Ez dakit artikulua honetan ateratzen diren ondorioak ontzat hartuak izanen diren ala ez; aski nuke kontuaren luze-zabalak agerian uzteko balioko balu.

Herri-administrazioan itzulpengintzan nahiz geure baitako testuak sortzen dihardugunok hainbatetan topatzen dugun edo derigor idatzi behar izaten dugun baliabidea da izen-koordinazioa. Izan ere, gure alorrean, besteetan baino areago, aurre egin behar izaten diegu horrelako izen-andana dorpe eta aspergarriei. Horrenbestez, geure buruei horrelakoetan mesede egiteko asmotan idatzia da artikulua hau. Probetxuzkoa izanen ahal da!

1. Izen-koordinazioa idazle klasikoen testuetan

Lehen zati honetan idazle klasikoen erabilera sistematizatzeko saio bat egingen dut; gero, bigarren zati batean, gaur egungo erabilera batzuk aztertuko dira eta lehen zatian definitzen den sistemarekin kontrastatuko dira.

1.1. Klasikoen gisara

Gure literatura zaharrean begia pausatu ohi duenak badaki nolakoa izaten den testu horien hezurdura: dena delakoa frogatzeko eta denek jarraitu beharko luketen bidea adierazteko, idazle greko eta erromatar paganoen, santuen, Elizako doktoreen eta eskura zetorkeen munta handiko beste edonoren arrazoia ekarri ohi zuten garai hartako idazleek euren testuetara. Nik ere halatsu egingen dut, nahiz eta frogatu-edo behar dentxoak ez lukeen horrenbeste merezi. Nahiago nuke, hala ere, kontu honetaz gaur egun dagoen ezjakintasuna zertxobait jantziko balitz hemengo arrazoi xumeekin.

Gramatikak, zentzu komunak eta are euskal idazle klasikoek adierazten digute izen-



koordinazioan elementu guztiek daramatela kasu-marka. Gaur egun, ordea, anitzek jotkatzen du bestela —gero eta gehiagok, eginen nuke— eta ez nuke jakinen erraten hiru hanka horietarik zeinek huts egiten dien. Ikus dezagun idazle klasikoen adibide andana bat, kasu-marka, garai eta euskalki gehienak bertan bildurik:

«Mundurat agertu diren gizonik aiphatuenac, aberatsenac, munduaren arabera dohatsuenac, non dire orai, Franzizco?» (Laphitz, *Bi Saindu Heskualdunen Bizia*)

«...or oi zabiltzee zeuben jaquituriya ustiaz, gaisuac cer daben igarri ecinic; batari miña ate-

ra eraguin, ugarric, cetacarie, edo corticarie ete daucan;...» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Çuberoac, Biarnoc, Bassanauarrec, Lapurdic, França oroc aithortçendu, çu iaun handibat, Baroin handibat, Marquis handibat çirela,...» (Tartas, *Onsa Hilceco Bidia*)

«Ta sentitzen dut austen diradela/ uztarriai, suari, segari ta aizcorari/ achiquiya contzen nuten catiyac...» (Indaburu, *Haizegoa*)

«Hirugarrena, iracurtzera datocenean, Colonaren, Commaren, edo Puntuaren differentia ceric den,...» (Leizarraga, *ABC*)

«Gure Salbatzailea cerurat igan eta, Izpiritu Saindua errecibituric, lehenic cembeit dembo-

ra ibili cen Ebanjelioaren predicatcen Judeaco, Samariaco eta Siriaco bazterretan.» (Adema, *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*)

«Sifisten dezu, ori dela hitz-queta batean Samaritana mudatu zuena; ta beguiratce batequin San Pedroz, Magdalenaz, ta bertce edoceñez, nai zuen gucia eguiten zuen, Jesus maitagarria? Siñesten dezu, ori dela aiceaz, etsayaz, eritasunaz, ta elementu guciaz, nai duena eguitemco escua duen Jaincoa?» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Oneec dira, araco ardaoazco; odolezco, ta luxuriya utsezco gentilen olgueeta loijac, ta guizatasunaren desondragarrijac,...» (Frai Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Jesukristorekin, haren minichtroarekin eta Elizarekin bat egiten naicelarik, ene chedea da, Jauna, Meza Saindu hunen bidez, zuri zor darozkitzudan adoracione eta esker on gucien bihurtcea;...» (Adema, *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*)

«Mendeak eta mendeak ditik, Pello, Espainiako errege handi batek, bere populu gaizoaren nekez eta izerdiz, (zuzen zen bezala?) egin-arazi zuela yauregi eder hori, behar zuelakotz, hiritik kampoan, udako bero handietako, egoitza fresko eta gisako bat, beretzat, bere familiarentzat eta korteko lehen gizon eta emazte gachoentzat.» (Elizanburu, J.B., *Piarres Adame*)

«Baña igaro jatzu zuri leengo zoraasuna, ta ezagutu dozu, zuc dongatzat, lapur-usainecotzat, sorguintzat ta guzurtizat ceuncan luebaguin prances au, dala guizon cinzó, eguijazi, on ta cristinau garbi bat.» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Copetan, aoan, ta bularrean eguin ditudan Gurutceac aditcera ematen dutena diot gogo guciarequin.» (Mikelestorena, *Cerura nayduenac ar dezaquean vide erraza*)

«Eta baldin hala bada, perilos bada, kilika bera bada, pairu gutitako bada, ihes cgin, eta

begira diferentziarik ahal datekeien okhasino guztietarik: presentatzen diren periletarik, iendartera sobera ilkitzetik, eta bai egitekotan eta kargutan ere sartzetik.» (Axular, *Gero*)

«Eruango zaitut errotara, olara, basuetara, ta beste lecuchu batzuketara, ta eracutsico deutsudaz zuc eztaquizuzan, ta jaquin guraco dituzun gauza asco.» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Gorde bedi legue Santuba, serbidu bedi Jesus, amau bedi Jesus, ta gauza guztiac biurtuco dira gueure oneraco, gueure consueloraco, ta alegrija eguijazcoraco.» (Frai Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Noraezeco, ezinbestezco, eta estuasunak eraginiko eskaintzak' alferrek dira.» (Mokoroa, *Ortik eta Emendik*)

«Bakoitzak bere errikoakin itzein oi duen bezala, bere erara lenago paperean ezarri, kontuz etxean nai bezala irakurri, ta gero pulpitan, errespeto andiagoaz, errazago, gogotikago ta biziago, esango du.» (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*)

«Ontzako urreak' bosnaka, hamarnaka eta hogeinaka ere ipinten dakite, beren gogokoaren alde.» (Mokoroa, *Ortik eta Emendik*)

«Emadazu othoi, zurekilaco, ene conctientciarekilaco eta ene lagun proximoarekilaco bakea.» (Adema, *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*)

Beste hainbeste gertatzen da ezezko perpausetan:

«Ez da gueure Jaungoicua ez zitala, ez urrija, ez prestubeza, ez tristia; ez bada arteza, zuzena, zabala, ugarija, vijotz nasaicua, ta alegueria, biar dan moduban, aitu ezquero...» (Frai Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Ta, eguina garbatuta, ostera ez eguitemco, asmua artu artian, ez Caballeruac, ez Seinoraac,

ez Zaldunac, ez Damaac ezdagoz prest compe-
sectaco; ezin inoc absolvidu leguiz.» (Fraí Bar-
tolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Ez obispoc, ez Curac, ez Erreguec, ez Jue-
cec ez deutsa inori aguinduten, ez piestara Jua-
teco, ez naasteco dantzaan sartuteco.» (Fraí Bar-
tolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Ezdau cristandadeco Legueguinec ez Uri-
ric, ez Ciudaderic, ez Erriric castigueetan, bere
luurreco dantza nastecuac quendu ditubalaco.»
(Fraí Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Ez lau orrialdek, ez laurogeik, ez laurehu-
nek ez diote euskarari gora edo behera handirik
egingo.» (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*)

«Baina ez Leturiak ez X-ek ez gaurko nor-
nahik ez dezake entzungor egin.» (Mitxelena,
Idazlan Hautatuak)

Adibide hauetan guztietan ikusten da le-
hen erran dena: euskalki eta garai guztietako
euskal idazleek idatzi dituztela enumerazio-
ak elementu guztiei kasu-marka gaineratzen
zietela. Baina kontua ez da horren sinplea.
Idazle batzuek ez dute beti errespetatu arau
hori. Erran liteke batzuek zerbait arrazoi bat
bazutela hala ez egiteko, baina beste idazle
batzuekin ezin da garbi jakin sistemaren bat
zuten ala gogoak ematen edo belarriak eska-
tzen ziena idazten zuten aldiro. Hemen era-
bilera sistematizatuak aztertuko dira; beste-
lako erabilerek deus guti balio dute honetan:
batean gure alde ditugu eta hurrengo batean
gure aurka.

1.2. Hauek ere klasiko

Erran bezala, eman ditugun adibideetan
betetzen den araua urratzen da hainbatetan.
Areago, araua erakusteko adibidetzat eman
ditugun egileek beraiek urratzen dute han eta

hemen. Urratze-kontu honetan mailak eta
mailak daude ordea, eta oro har erran liteke
idazlea zaharrago izan, araua betetzenago
dela. Jauzi handia dago Axularrengandik
Mendibururengana edo, euskalki bera duten
bi idazle aipatzeko, Fraí Bartolomerengan-
dik Mogelengana, araua ez betetzeari dago-
kionez. Eta bi kasu horietan, zaharragoeta-
rik berriagoetara gutxi-asko ehun urteko
aldea dago. Ez dira, bada, gauza handia ehun
urte hizkuntza-kontuetarako. Baina bada
zerbait.

Gorago erran da araua ez betetzeko siste-
maren bat edo beste dutela egile zenbait.
Halako sailkapen bat eginik, ondoko testuin-
gurutetan gerta daiteke araua ez betetzea:

- 1.2.1. Mendeko izen-sintagmetan.
- 1.2.2. Izenondo koordinatuetan.
- 1.2.3. Gutxienez bi makulu dituzten
izen-sintagma askeetan.
- 1.2.4. Argitasunak edo gramatikak eska-
tuta.
- 1.2.5. Izen-andanak daraman kasu-mar-
ka mugagabea dagoenean.
- 1.2.6. *bezalako*, *gisako* eta horien ordezk-
o egiturak erabiltzen direnean.

Sailkapen honetako mailak ez dira itxiak
eta zenbaitetan gertatzen da irizpide haue-
tako bat baino gehiago biltzen dela izen-koor-
dinazio berean. Halakoetan zaila da jakiten
zein den indar gehien duen irizpidea eta be-
rez toki batean baino gehiagotan aipatu be-
harko nituzke adibide berberak, baina nahia-
go izan dut horrelakoak toki bakar batean
aipatu, nahiz eta badakidan agian ez dituda-
la toki egokienean ipini.

Ikus ditzagun banan-banan testuingu-
ruok:

1.2.1. Izen-koordinazioa mendeko izen-sintagma denean.

Mendeko izen-sintagma erratean, izen-sintagmak ezkerrean menderatzailerik edo mugatzailerik bat duela erran nahi da. Mendekoen artean, sail berezi batean paratu ditut erlatibo-koak.

Ikusiko denez, zenbait idazlek joera hau dute: koordinaturik doan izen-sintagmak aitzinetik erlatibo-ko perpaus bat edo izen-koordinazioa mendean duen bestelako perpaus-elementuren bat duenean, enumerazio-ko edo izen-andanako azken elementuak hartuko du kasu-marka, baina ez besteek:

1.2.1.1. Erlatibo-koak

«Ba dira orain ere leneco illumbea bezain gaistoan vici diran Gentil, Turco, ta Heregeac.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«...ta bi-garrenean Jesus-ec Aldarean, ecusten dituen oztasun, videgabe, charqueri, ta gañeraco gauz arrigarrien damuz beteric gu vici-tcea.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Diran Ave Mari, Meza enzute, ta confesioac, bihotz ciquiñean arquitec diran confesio, Meza, ta Ave Mariac dira,...» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«...emay-ezu Lurreco guciey, onen ezague-ra andi bat, ezaguturic zure Bihotza-ri zor zaion amoreta, ta gu gatic eraman dituzun neque, icer-di, odol-issurtce, charqueri, ta eriotz gogorra.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Purgatorioan erretcen dauden Aide, zor diegun, eta gañeracoac gatic.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Congregacioco Reglac*, 1751)

«Ordu da mintza nadin orai, denbora hartako gerla zibiletan hil izan ziren mila eta mila

yende handi, xume, gizon, emazte eta haurrez berez.» (Elizanburu, M., *Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzeki*)

«Peregrinua jarrico da Junta zuzentzalliac emon leiquezan aguindu, erabagui, ta paguraco condeziñuen azpiyan, peregrinaciuaren aurrezic eta berau dan artian.» (*Euscaldunen Peregrinaciuua Erromara*)

Adibideotan ikusten denez, kasu-marka izen-andanaren bukaeran ageri da baina ez hasieran edo erdian, erlatibo-koak izen-andanako elementu guztiei eragiten dielako, nire ustez. Bestela, ikus bedi Mendibururen beste adibide hau, hor garbi baitago erlatibo-koak lehenari eragiten diola baina ez hirugarren eta laugarren elementuei —bigarrenaren kasuan ez daiteke deus erran—:

«Baña cer guertatcen da? Heregeen escutic artu dituen vide-gabeac, injuriac, gaistoan comunioac eta Elizaco charqueriac asqui ez-palira bezala, charqueri berriac eguiten zaizca, honra ta amore uts-eraco Elizac bereci dion egun onetan ere.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

Axularrek, Tartasek edo Frai Bartolomek ez dute halako bereizketarik egiten. Izen-sintagma mendekoa izan ala askea izan, elementu guztiei paratzen diete kasu-marka:

«Zeren bertzela ezta sendatzerik, eta ez emaiten diren midizinek, eta egiten diren erremusinek, barurek, orazinoek eta bertze obra onek on giterik.» (Axular, *Gero*)

«Eta edirenen duzu, baldin zinzinez, fintki eta debotki manaiatu eta enplegaru bazina, berrogoi urthe horietan egin ditutzun ongiak, ontasunak eta obra guztiak, egin zinituzkeiela urthe batez.» (Axular, *Gero*)

«Neuré adisquidia, vstedut capitulu vhuntan ediren duçula, çuré herioari çorduçun ohoria, amorioa, eta orhitcia.» (Tartas, *Onsa Hilceco bidia*)

«...Eliçan sartcien cirenian, eguiçu sobat çuré aitcinian Ioan diren çuré asquaci, adisquidiac, eta çuré eçaguti, eta orhituric hayen hilciaz, orhitcité çuriaz,...» (Tartas, *Onsa Hilceco bidia*)

«Ezdaiguzan contuban sartu, plazaraco ta piestaraco eguiten dirian lapurretac, ta andi ateraten dirian ordiquerijac, joco charrac, ta beste maldadiac.» (Fra Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Ezdaigun contuban sartu, piestia, ta dantzia dala medijo baseerri echeetan eguiten dirian castu alperricacuac, vanidadezcuac, ta neurri bagacuac.» (Fra Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

Bietara sortzen ditu arazoak erlatibozkoaren mendeko izen-sintagmak: Mendiburuk bezala, azken elementuari soilki jartzen bazaio kasu-marka, argi dago erlatibozkoak elementu guztiei eragiten diela, baina ez dago bereizterik elementu horietan zein dauden pluralean eta zein singularrean edo mugagabeen. Axularrek-eta bezala, kasu-marka elementu guztiei gaineratuz gero, argi gelditzen da elementu bakoitzaren numeroa baina ez dakigu erlatibozkoak elementu bati eragiten dion, elementu guztiei ala batzuei bai eta besteei ez.

Adibidez, ondoko esaldi honetan, garbi dago erlatibozkoak lehenari bakarrik eragiten diola, baina semantikak argitzen digu kontu hori, ez sintaxiak, *begirakune maiteak ez baitira belarrian esaten*, eta are gutxiago *eskuka lohiak*.

«Basoco suga, ta pristija venenotsubac oin-duari verenua ezarten deutseen leguez; dantza-

rijac albocuari belarrijan esaten deutzazan verba desonestubac, veguiracune maitiac, ta escucaloijac, sartuten deutseela vijotzian pecatubaren verenua.» (Fra Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

1.2.1.2. Izen-sintagma mendean duten gainerako kasuak

Erlatibozkoen gisara hauek ere mendeko sintagmak dira. Oro har izenlagun bat edo galdetzaile bat dute izen-andanaren aitzinetik, izen-andana osoari eragiten diona. Kasu honetan alde handiak daude idazleen artean. Erlatibozkoen sailean ikusi dugunaren antzera, Axular, Tartas eta Fra Bartolome dira sistemaz honelakoak egiten ez dituztenak baina beste idazle anitzek askeago jokatzen du horrelakoetan, ez oso era sistematizatuan hala ere:

«Jaincoa cifiez maitatu bearrean, gaizqui, edo epel guelditcen diranac leneco condicio galdu, aztura char, ta uts eguite gaistoacquin, sendatuco ez dirala, beldur izan ditezque:» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1747)

«Barcacio hau erdisten ez duen Congreganteac atera beharco ditu bere zorrac Purgatorioan suzco nequea-requin, edo emengo neque, hildura, ta pertinenci-equin.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Congregacioco Reglac*, 1751)

«Aita Larramendi batek jardun zuen, ta, berak dion bezala, ez bakarrik gure probinzia guztiz noblearen, ezpada Jainkoaren gloriagatik ta animen salbazioagatik, ta ori Elizako euskaldun maisu, konfessore ta predikadoreetan obeto seguratu ta errezago egiteko.» (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*)

«Batzuetan, nola ondo konfesatu ta frutu andiaz komulgatu bear dan: nola Jaunari graziak eman, ta zer denbora artan eskatu bear zaion: zer fede, errespeto ta debozioaz meza-

tan, Santisimoaren aurrean ta eleizetan egon bear dan.» (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*)

«Dotrinaren puntu txit bearrak dira, umeak Jainkoaren bildur santuan azitzeko legeak: guraso ta familia-buruak oriek ondo zuzentzeko, eta umeen gurasoakiko amorio, obediencia ta errespetoaren obli<ga>zioak:» (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*)

«...ta tonu artan esanaz, guziak erantzun edo esaten zituzten: Aita G., Abe M., Salbea, Kredo ta Artikuloak, Legeko ta Eleizako Mandamentu, Sakramentu ta miserikordiazko obrak.» (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*)

«Jondoni Petriren Eliza horri datchicola, Neron emperadorearen jostetaco eta pasaietaco toki heien beren gainean dire orai, Aita Sainduaren phalacio, baratce eta haitztegiac.» (Adema, *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*)

Erran bezala, Axularrek, Tartasek edo Frai Bartolomek nekez eginen dute salbuespenik horrelako testuinguruetan:

«Arrazadura urthatua, narrio zahartua, zauri gaizkoatua, ezta pontu batetako midikuntzaz sendatzen, ezta behingo bisitaz erremediatzen eta ez hain fite leheneko estanteria, estatuta eta egoitzara bihurtzen.» (Axular, *Gero*)

«Kofesatu ondoan, munduak, deabruak edo haragiak berriz bekhatu egitera, eta leheneko estatutan, egoitzan, etzauntzan eta tokian iartzerak akhometatzen zaituztenean, ihardetsi behar zeneraukaic:» (Axular, *Gero*)

«guré bidia çombat eder den errandu, eta colpu bakhoitz, aizcora colpubatez beçala, bidé huntaco naharrac, caparrac, eta ilhorriac tren-catu ditu.» (Tartas, *Onsa Hilceco Bidia*)

«Çuré personan, launa çuré aiçinecoen ohoria, vertutia, coragia, eta icena biçida,...» (Tartas, *Onsa Hilceco Bidia*)

«Asco dagoz munduban, dantceetaco nasaitasuna, libertadia, ta luxuriya zaintu, ta jaso gura daveenac, diabrubeen irabatzija guichitu ez dedin.» (Fraibartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Ara emen gueure errijeetaco zeceneen, ezpata dantzeen, desapijotaco burruqueen, maquilaqueen, ezpataqueen, comedijeena, dantzeen, ta convidau teguijeen sartu eria, edo etorri eria cristandadera.» (Fraibartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

1.2.2. Izenondo koordinatuak.

Izen bati izenondo sail bat egokitzen zaionean, euskal idazle anitzen jokabidea da azken izenondoari bakarrik paratzea kasu-marka. Hemen ere nekez hitz egin daiteke erabilera sistematikoez, baina eginen nuke aitzineko beste kasu batzuek baino onarpen zabalagoa dutela horrelako erabilerek. Hori dela eta, Mogelen adibide bat edo beste paratzerak ausartu naiz, joera zabalago batekin bat datorrelako, zeren gainerakoan aski libre jokutzen baitu Elgoibarkoak izen-koordinazioari kasu-marka ezartzean.

Hona erakusgarriak:

«Gizon gaixto, odol-isurle, gerlati, maliziatia, eta enganatiek ezituzte bere egunak erdizkatuko, eztira halakoak bertzela biziko zirenen erdia biziko.» (Axular, *Gero*)

«Eztiazozula beha, emazte arin, airatu, leihariari:» (Axular, *Gero*)

«...ez oi nas sartu ardanteguijetan nora ecian, premifiaz, ta ecin bestez baño, ez jacolaco echagun beguiratu bati ondo eguiten buruba bat eguitia guizon ospetsu, burrucari, ondatzalle, alper, ta baldanacaz.» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Toqui au guizon baldres, zantar, aciera charrecuentzat obia da, berori langüentzat baño...» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Etzaite inos ezcondu nescatilla nasai, baldan ta mutilzalegaz aberatsa bada bere.» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Arako, orain bi urte, Begofia joan gifianean, bere burua bilbotar edo Bilbon bizi diran gazte nagi, txakil batzukaz bat egin da, ango gizon malmutz, edari ta labankeri zalekaz nasteen, geuri arrika ta txistuka ibilli zan ozpin-durik.» (Agirre, *Kresala*)

«Azkenik erranen dut zenbait urthe huntan ikhusten direla bertze prosione batzu itsusia-goak: hek dire gizon triste, inpio, framazon, elizako sakramendurik gabe hil eta, ez aphezik, ez khurutzerik, erhosterakoan, nahi ez dute-nak.» (Elizanburu, M., *Frantziako hirur Errepubliken istorioa laburzki*)

«Egi egia erran gizon xuxen, xintxo ta gal-tzairuzkoak agertu dire.» (Arburua, Argia egunerokoa, 1931)

«Gizon uli ta ollo busti ta illup utsen berri bagenuen... baño unenbertzenik eta gudulari-yai bortitzenak bear zutenetik... ez genuen ifio-mifiatu ere.» (Arburua, Argia egunerokoa, 1931)

«Haren gogo erne, beratx eta irrikor, bare eta aldartetsuak—eguzki eta laino, eta hodei fiabarrak zeruan barrena lasterka— opa zuen bizi eta heriotza hortxe dago...» (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*)

Hemen ere Axularrek eta Frai Bartolomek—baita Tartasek eta beste askok ere—kontrako bidea erakutsi dute, nahiz Axularrek bietara jokatzan duen, ikusi berri dugun bezala.

«Gu iende kastoak, onhestak, garbiak, pau-satuak eta begiratuak gara:» (Axular, *Gero*)

«...edirenen dugu gure gero hunek presuna herratsuen, errietatsuen eta haserrekorren artean ere baduela bere ostatua eta iarlekua, heran ere kalte handiak egiten dituela.» (Axular, *Gero*)

«Bada, sinistuco dau inoc, Sacerdote bat, (ta oraindino ezainago Religioso bat) bere estadu altubaren, Santubaren, ta garbijaren lotsarijan, ta ordiaco Sacramentubaren desondraan ibilico dala piestetan, ta dantzeetan?» (Fraibartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Olgueeta odoltsubaquin, luxurijotsubaquin, ta ardaotsubaquin Jaungoico paltso asco, Marte, Jupiter, Baco, Venus, ta beste milla gauza loi Jaungoicotzat adoreetan citubeenena.» (Fraibartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

1.2.3. Gutxienez bi makulu dituzten izen-sintagma askeak.

Idazle jakin batzuek izen-andanetan berez idatzi beharreko kasu-marka guztiak jarri beharrik ez izateko teknika eman digute. Baliabide honetan, hasierako zenbait elementu hartzen dute kasu-marka, gero beste elementu batzuk datoz, biluziak, eta azken elementuak berriz ere hartzen du kasu-marka. Izen-andana luzeetarako erabiltzen da teknika hau, gehienbat, baina laburragoetan ere topatzen da.

1.2.3.1. Baiezkoak

«...ala aditcera ematen digute Santuen bitcitza, edo historiac: bada S. Franciscoc, Loyolaco San Ignacioc, Santa Theresa, S. Luis Gonzaga, ta beste ascoc etzuten Jesusequin Elizan ceudenean adifia atseguin beren bihotcetetan izan oy.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devociao*, 1747)

«Nai adifia gauz on zuc eguifia gatic, ohar-turic vici ezpacera oroitzapen lizunen, begui-ratce arin, behar ez tiran sartu-ateratce, danza, jostatce ta onelaco gaucen artean, becatuaren catez lotua daducazu bihotza, edo cate horien billa zabiltza.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devociao*, 1751)

«San Francisco-ren, Santo Thomàs, Santa Theresa, S. Buenaventura, San Ignacio, San Francisco Xavier, San Phelipe Neri, S. Francisco de Sales, ta S. Luis Gonzaga-ren vicitza, ta libruac ecusi, edo iracurri dituztenac, edo orien berria dutenac ba-daquite cein andia cen, Jesus-en Bihotza-requin zuten devocioa.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Aguertuco diotzat nere beguietaco, nere beharri, mingaiñ, ta bihotzeco zauri guciac,...» (Mikelestorena, *Cerura nayduenac ar dezaquean vide erraza*)

«Antziñako filosofo lenenak, erretorikoak ta, are geiago dana, Eleiza-gizonik andienak, misurik jakintsuenak, Espiritu Santuaren argiaz gidatuak, beren zeruko libruak lengoaje bietan eskribitu zituzten: ala Ignaziok, Polikarpok, Justinok, Klementek, Tertuliano, Origenes, Zipriano, Laktanzioak ta beste eskritore santuak.» (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*)

«Pekatuena kontra aserre-aldiren bat iñoiz bear badere, baña guzia pekatarien amorez, guzia pakez, pazienza ta espirituko suabidadez beterik, San Pablok dionez:» (Kardaberaz, *Euskeraren Berri Onak*)

«Bada Eusqueeraz, Erdeeraz, Prances, Italiano, Teutonico, ta beste ascotan, dinueenez, dantzia, dantza, danse, danser... esaten jaco olgueeta indecente ari.» (Frai Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Au ondo ezaututa, ondo sinistuta, Jaungoicuaren Mandatari arec euren liburubeetan esanda ichi even cristinau guztienzat naasteco dantzaac gaiti[,] ordiquerija, gorrotua, murmuracinoia, sobervija, Batio-ucaturia, sacrilegijua, luxuriya, pornicacinoia, ta beste pecatu ezainac gaiti esan even baixen deungaro.» (Frai Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Eta arrituteco gaucia da ceimbat asmogaz, igote, jaazte, ezcuteta ta aguertutegaz ostu ta eruan daruezan.» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Zoiyac chicartu biar dira achurraz; ariac, nabasai, iruortz ta nabarrac igaro biar dabee soluan galgarauba ondo gorde dedin, ta eruan ezdaguijen currilloc, belá ta beste chori garau zaliac.» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Iragan dituzu zelhai aberatsak, mendi gogor, itsaso, mortuak.» (Duvoisin, *Laborantzako liburua*)

«Aziendek ematen darokute jakia, esne eta gasna; ematen darokute mozkina ileetik, bildotsetarik, aratchetarik eta salpenetarik.» (Duvoisin, *Laborantzako liburua*)

«Zer izan da Frantziako Erreboluzionea? Frantziako erreboluzioneaz aditu behar da, yuan den mendearen azken urthetan eta mende huren hastean, gure aitzinekoek ikhusi izan zituzten nahasdurak, krimak, batzuek bertzen kontrako gerlak, edo gerla zibilak, mazakre eta ibayaka odol ixurtze eta gainerako izigarrikeriak.» (Elizanburu, M., *Frantziako hirur Errepubliken ixorioa laburzki*)

«Irelecuco ta ametseco/ iyintz ttantac damazquite,/ basurden beiradac, arranonac/ aceri ta oreñenac.» (Indaburu, *Haizegoa*)

«Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi eta sinesteak ohiturazkoak ziren...» (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*)

1.2.3.2. Ezezkoak

«Ez dezazula vezperetara falta, ez ta Rosario Santu, edo beste edocein devociozco lan, edo obratara ere.» (Mikelestorena, *Cerura nayduenac ar dezaquean vide erraza*)

«Eztozu enzungo nire echian biraoric, ez baralla, ozpe, atralaca, ta isquibiduric; bai verba onac, elessaco gauzaac, ta baque beticua.» (Mogel, *Peru Abarca*)

«Obrera uts, idunian lotuba; ezta cer escatu jaqueric, ez calcerdi, ez abarca, ezta pracaric bere.» (Mogel, *Peru Abarca*)

Adibideotan ikusten denez, baiezekoetan bezala ezezekoetan ere izen-andanari bi makulu jarritz gero, ulergarritasuna bermatzen da, gramatikari kale egiten bazaio ere, baina konpromisozko irtenbidea da, azken batean, zuzentasuna, argitasuna eta arintasuna, hurrak orekatuz lortzen dena.

1.2.4. Argitasunak edo gramatikak eskatuta.

Zenbaitetan, gerta liteke arauaren aurka joan beharra izatea, gramatikak besterik eskatzen duelako edo argitasunaren mesedetan:

«Ogi hautena da gogor, bildua, phisu, ongi bethea, hampatua edo torroil; leguna da eta kolozez hori arin; eskuetarik errechki lerratzen da; pomparazten bada taularen edo harriaren gainean, harrabots arina egiten du; hortzen artean ere gogor da eta kraskako bat eginez hausten da; erdiko arrailadura, edo erreka, meharra du eta ez barna. (Duvoisin, *Laborantzako liburua*)

«Gure Aita Saindu handi eta maitea bera, zuentasunezco eta ohorezco lege gucien contra, khien ahal cetzozketen guciac khenduric, hantche baitagocate gathibo, trabatua, herxatua eta cer nahi axecabez doloratua.» (Adema, *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*)

Ikusten denez, izen-andanako elementu batzuk kasu-marka dutela eta beste batzuk deus gabe ageri dira: izenondoak biluzik eta partizipioak absolutuan. Gaur egun, bizkar zabal gelditzen garela paratuko genituzke denak absolutuan, baina klasikoan garaiko belarriak besterik eskatzen zuen eta eskakizun haren bidetik doaz adibide hauek.

Beste zenbaitetan, argitasunaren eskariz egiten da:

«Beguiratce, hitz eguite ta gañeraco gaudetan oharturic vicitzea;...» (Mendiburu: *Jesusen Bihotzaren Congregacioco Reglac*, 1751)

Honetan, adierazi nahi ez duen gauza adieraziko luke, izen-andanako elementu guztietan kasu-marka jarri balu, besterik baita *begiratzean, hitz egitean eta gainerako gauzetan* erratea.

1.2.5. Izen-andanak daraman kasu-marka mugagabeen dagoenean.

Izen-andanako elementu guztiak mugagabeen deklinatu beharra dagoenean, azken elementuari baino ez diote kasu-marka ezartzen hainbat idazlek. Ikus ditzagun adibideak:

«Missio, Garizuma, edo Sermoyen batean berotu diranac, uste dute, oztuco ez dirala befiere.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Beste anitz prestatcen dira cembait baru, cilicio, edo gorputzaren neque-requin.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Gure Salbatzaile Jaunac han ibiliricaco urraxac eta han utciricaco hatzac, haren demboratic beretic hasiric, izan dire hain lehiarekin miatuac eta icusiac,... hain artharekin geriztuac, eta hain fidelki bethi begiratuac, nun, hainbertce dembora, gerlate, funditce eta nahasmenduren buruan, oraino gutiz gehienac aise ezagut baititezke.» (Adema, *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*)

«Bai, neska, Yainkoak aunala beti eder eta zorioneko; bañon ifioiz zakur, musker, otso, edo beste piztiren batek ozkatzen baiaun, oa Santa aiengana ta bertan duken aringarria.» (Orixe, *Mistralen Mireio*)

Nire ustez, elementu guztiak numero bera izateak ematen du kasu-marka ez ipintzeko aukera, eta numeroa zein den mugatzeko zeregin horretan laguntza handikoak dira *hainbat* edo *zenbait* bezalako aurrekariak.

1.2.6. bezalako, gisako eta horien ordezeko egiturak erabiltzen direnean.

Izen-andana baten ondotik *bezalako, gisako* edo horrelako elementuren bat jarritz gero, horien aitzineko izen guztiak deklinatu gabe emateko eskatzen du gramatikak.

Adibidez:

Maroko, Turkia eta Aljeria bezalako tokietan bero handiak egiten ditu.

Baina perpaus hori zertxobait itxuratuz gero, beste perpaus hau aterako litzateke:

Maroko, Turkia, Aljeria eta horrelako tokietan bero handiak egiten ditu.

Hau da, bigarren perpaus hau *ad sensum* zuzentzat jo genezake, baina argi dago ez duela euskal gramatikaren araua betetzen, zuzena beste hau izanen baitzen:

Marokon, Turkian, Aljerian eta horrelako tokietan bero handiak egiten ditu.

Beraz, forma aldetik desberdinak izan arren, *bezalako, gisako* eta horien ordezkariak jar daitezkeen beste zenbait elementurekin orobat jokatzeko dute hainbat idazlek. Hori da, behintzat, hemen egiten den interpretazioa. Ikus ditzagun adibideak:

«Balsamo, anbar, musketa, eta halako ber-tze usain onak, iendèn enganatzeko, beregana erakartzeko, bere buruez mintza arazitzeko, eta haragiaren bekhatuan eroriak dauntzala usnat-zeko, eta gogan behartzeko bideak eta seinaleak dira.» (Axular, *Gero*)

«Juez gaisto, Escriba, ta Fariseo, ta orien alde ceuden guciac ingurutu zuten Passioco dembora gucian, adar zorrotzac dituzten, ta odola iraquitzen daducaten Cecenac bezala; ta utzi cien Jesus-ec, ceguitela nai zuten gucia.» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Bruxelas, Borgoña, ta beste anitz bazter, edo aldetan ecusi cituzten Heregeac, berac cz-pata puntequin eguin cieztan zuloetatic odola ceriela, forma santuac:» (Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1751)

«Junta zuzentzalliac bere ardurapian artuco dau, bai bidian da bai Erroman, tren, vapore, coche, ostatic ta onetaticuacaz zer icusi dauca-na, berba baten, peregrinuac biar daben guzti-ya, onec ezeren arduraric euco eztabela beifi biajia asi ezquero ta amaitu arte.» (*Euscaldunen Peregrinacinoa Erromara*)

«Bere egunian eguingo da particiñua fon-detaco guela, ontziyetan lo eguiteco lecu, ta emparauena, begiraturic orretaraco bacochac daucan numeruari; ta jaquiña, onenac izango dira lenengo apuntau dirianentzat.» (*Euscaldunen Peregrinacinoa Erromara*)

«Condorcet, Comte, Spencer eta horre-lakoen progresismoa malda behera omen dabil mundu guztian.» (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*)

Horrek ez du erran nahi beti hala joka-tzen denik, ezta hurrik eman ere. Anitzetan honela ematen dira horrelako izen-andanak:

«Zeren anhitz moldez eta diferentki minza-tzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Biz-kaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhtan.» (Axular, *Gero*)

«Billetien precyuetan dagoz sartuta biajia, ja-nedana, ta ostaticua peregrinaciuac iraungo daben dempora guziyan, baita dealde sartutia Museoe-tan, Pinacothecan, Vaticanuan, Letrango San Juan eleizan, da onetario beste lecu batzuetan.» (*Euscaldunen Peregrinacinoa Erromara*)

1.3. Izen-koordinazioa, estilo-baliabide.

Ez dut artikularen lehen zati hau itxi nahi, beste alderdi bat aipatu gabe. Izan ere,

hainbat euskal idazlek modu librean jokatu dute izen-koordinazioa erabili dutenean, baita testua edertzeko aitzakiatzat hartu ere. Askatasun literarioak dira, dudarik gabe, eta beraz ezin sartuko ditugu inongo eskematan, baina beste batek errana da batzuetan zapatek min ematen baligute bezala aritzen garela euskaraz idaztean, eta ezin ukatu daiteke noizean behin komeni dela beti-batekota-sunetik ihes egitea.

«Nai davenac nai davena eguin daguijala, naastia, arin aringua, arrebatua, ta pandangua jotén ditubanian. Ya dagoz dantza atan guizonezcoric, edu emacume, edo mutilic, edo nesca.» (Frai Bartolome, *Euscal-Errijeta-co...*)

«Adi zak, Bikendi, dio Mireiok, sortak bizkarrean, andik onata saski-berritzen abilela, ikusiko dituk, naski, gaztelu zarrak, erriak aunitz, baso gaitzak, ta yai ta pestaburu.» (Orixé, *Mistralen Mireio*).

2. Izen-koordinazioa. Zenbait ohar gaur egungo erabilerez.

Bigarren zati honetan gaur egungo adibide batzuk aztertuko dira, egun egiten diren berrikuntzak eta berrikeriak ikusteko. Hartarako, lagin bat hartu da euskal prentsatik. Zoritzarrez, ez dut biltze-lan sakonik egin gaur egungo erabilerei buruz; xede honetarako, idazle klasikoen erabilerekin bat ez datozen adibideak biltzea aski zela iruditu baitzait. Oro har, erran liteke sentsibilitate gutiko gaia dela hau, arreata handiegirik hartzen ez duena. Klasikoen araberrako erabileren aldamenen *hanka bakarreko* izen-koordinazio hankamotz dezentetik ikusten da.

2.1. Gramatikak eskatu bezala

Anitz dira euskal idazle zaharrek bezala, gramatika zaintzen duten gaur egungo idazle eta kazetariak. Ikus ditzagun erakusgarri batzuk:

«Japonian, Suitzan, Belgikan, Alemanian, Erresuma Batuan, Espainian eta guztira hogeit hamar herrialdetan banatzen dituzte...» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-19)

«Ízan ere, eszena berean bildu ziren dantzariak, musikariak, inprobisatzaileak, gaiteroak, atabalariak...» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-20)

«Haiekin batera, Ereintza elkarteko txistulariek, Oreretako dultzainariak eta Lagunak txarangak beren ekarpen txoa eskainiko dute...» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-22)

«Ondorioz, Ipar Euskal Herriko, EAEko eta Nafarroako eremu euskalduneko, mistoko eta erdalduneko euskaldunok hizkuntz eskubide ezberdinak ditugu.» (Gaztetxulo, 2001-02-02)

«Zoritzarrez, horrek eragin handia izan dezake auzo pobreetako giza azpiegiturretan, zerbitzuetan eta abarretan.» (Irutxulo, 2000-03-10)

«Free jazzarekin lotzen da Hadenen bidea, eta fusioa landu du gehienbat Methenyk, jazz, musika latinoa eta beste hainbat estilo landuz.» (Zabalik, 2001-07-21)

2.2. Berrikuntzak eta berrikeriak

Arestian ikusi ditugun adibideen ondoan gero eta ugariagoak dira beste honelakoak:

«...baina hamar urteko ibilbidean The Vibrators, Johnny Thunders, Del Lords eta Dogs D'Amour-ekin jo zuen.» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-19)

«Haur horiek **Kanbo, Larresoro, Ezpeleta, eta Hazparneko** familia desberdinetan banatuak izan dira...» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-19)

«Lehen saioan **Butimbo** (Burundi), **Turiec** (Eslovakia) eta **Elai Alaik** parte hartuko dute.» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-20)

«Larunbatean, hilaren 28, **Siverko** (Errusia), **Tang inperiko dinastia** (Txina), eta **Conjunto Folklorico Guarionexen** (Puerto Rico) txanda izango da.» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-20)

«**Zarautz, Tutera, Mutriku eta Arrigorriagan** goi mailako estelarrak gaur (Euskaldunon egunkaria,...) 2001-07-22)

Erran bezala, gero eta hedatuago dira *hanka bakarreko* izen-andana hauek, baina ez dira berrikuntza guztiak txarrak. Ondoko adibideetan ikus daiteke formula egoki bat. Izen-andana aipatu baino lehen sarreratxo bat egiten da, berez enumerazioak eraman beharko lukeen kasu-markaz, gero bi puntuak eta azkenik izen-andana, inolako kasu-markarik gabe edo azken elementuak kasu-marka daramala.

«Ondoren, Nafarroako hainbat herritan eta hiritan egingo dira emanaldiak: **Tutera, Izaba, Bera, Tafalla eta Iruñean.**» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-21)

«Donostiak, hortaz, badu muga, teknikoki behinik-behin, Nafarroako hainbat herrirekin: **Arano, Lesaka, Goizueta eta hain hegualdean dagoen Zubietarekin.**» (Irutxulo, 2001-03-17)

Aparteko aipamena merezi du hurrengo adibideetan ageri den egiturak, hauxe baita

gaur egungo berrikeria nagusia, idazle klasikoetan nekez aurkituko duguna. Izen-andanako elementu guztiak absolutuan datoz azkena izan ezik, hau perpausak eskatzen duen kasu-markaz baitator:

«Gaur egungo **Erresuma Batua, Frantzia, Herbehereak eta Errusiaraino** iritsi ziren bikingoak.» (Euskaldunon egunkaria, 2001-07-21)

«Izan ere, tai jia onuragarria da **metabolismoa, motor sistema, digestio-aparatua, zirkulazioa, arnasketa eta nerbio sistemarentzat.**» (Zabalik, 2001-07-21)

Horrelakoak ez litzuke egiten ezta hone-tan librean jokatzeko duen Mogelek berak ere. Horrelako berrikeriek entzule-irakurlea nahasi besterik ez dute egiten, zeren perpausaren zentzua bere baitarik berregin behar izaten baitu, mezu kontrajarriak iristen zaizkionez gero. Konparazio baterako, perpaus baten hasieran ergatibo bat eta ondoren adizki iragangaitz bat aditzen duenean bezala gelditzen da entzule-irakurlea².

Gerta liteke izen-andanako elementu batzuk singularrean eta beste batzuk pluralean egotea –bikingoen perpausa kasu–, eta horrelakoetan ulertzekoa da pluralak eta singularrak bereizteko absolutuak jarri izana, baina euskaraz pluralaren marka kasu-markaren barnean baita, nekez konpon liteke arazoa klasikoan bide ortodoxoari jarraitu ezean. Erran nahi baita:

«Gueroz eta lehen içanda çurê familian personage handiric, Francian, Italieta, Biarnoan, euscal herrian, Moneineco icena gora eraman dianic.» (Tartas, *Oña Hilceco Bidia*)

2. Are larriagoa da arazoa, bi izen bakarrik koordinatzen direnean ere ikusia baitut berrikeria hau:

«Epe luzera, honek guztiak lagun diezaike **Estatu Batuak eta ekialde Erdiko alde guztiak**, ikustaraziko dielako...» (Euskaldunon Egunkaria, 2001-09-13).

«Achurren, laijetan, irabatuten, landara jo-
rraan ta biargueiric gogorrenetan, guizonen albó
ibilli arren, eztaue ain erraz estulic atera; ez
osaguille edo medicu artzian ibilli.» (Mogel, *Peru
Abarca*)

«Aguirico olgueetac, eta diversinoe publi-
cuac eragotzita dagoz Domecca, ta jai osuetan,
meza nausitaco, sermoetaco, visperetaco, pro-
cesinoeco, ta Altaraco Sacramentuban Jesus
aguirijan dagan arteco demporeetan.» (Frai
Bartolome, *Euscal-Errijetaco...*)

«Aziendek ematen darokute jakia, esne eta
gasna; ematen darokute mozkina iletik, bildotse-
tarik, ararchetarik eta salpenetarik.» (Duvoisin,
Laborantzako liburua)

«Ondoco igandean, oxailaren 14an, Berna-
detaren aizpac, haur lagunec eta cembeit pre-
suna larric ama hainbertce othoizturic, ardiexi
cioten heiekin bedere gatea.» (Adema, *Escual-
dun Pelegrinaren Bidaltzailea*)

«Maicenic geroni gare ceruticaco graci-
en batzaile, gure bekhatuez, gure Fede eta debo-
cione escasaz, gure chede ez aski zucenez, eta
gure nahi naturalegiez.» (Adema, *Escualdun
Pelegrinaren Bidaltzailea*)

3. Ondorioak

Hemen ikusi dena laburtzeko, erranen dut
gure idazle klasikoen testuetan gramatikaren
eskakizunak betetzen direla aldez edo moldez.
Zaharragoetan normalagoa da izen-koordina-
zioko elementu guztiek eramatea kasu-mar-
ka; gero, denborak aitzinera egin ahala, aska-
tasun gehiagoz jokatu izan dute gure idazleek,
baina beti ere perpausaren argitasuna zaindu
dutela. Azkenik, XX. mendeko azken laurde-
nean hasita, *hanka bakarrek* izen-koordina-
zioa neurri gabe hedatu da, ez argitasuna eta
ez gramatika zaintzen ez direla.

Nola esplika daiteke gramatikaren aur-
kako joera hori? Hedatze horren arrazoiak bi-
latzen hasita, hiru nagusi daudela erranen
nake. Batetik, soziatiboa edo instrumentala
bezalako kasu-markek, soilki izen-andanaren
bukaeran jarrita ere, ez dute arazorik sortzen
komunikazioan, kasu-marka metatzaileak
direlako, hau da, ez diote aparteko aldaketa-
rik eragiten elementuen batuketa soilari.
Gero, baliteke lizentzia hori inertziaz edo
analogia hutsez bestelako kasu-markak dituz-
ten izen-andanetara hedatu izana.

Bigarrenik, errazkeria horretan laguntzen
duen beste arrazoren bat egon liteke. Adibi-
dez, zenbait perpaus-osagaik kasu-marka ja-
kin bat eskatzen dutenez, osagai horren segi-
dan doan izen-andanak *hanka bakarrek*oa
izateak ez du arazorik sortzen komunikazio-
an. Hau da, perpausaren hasieran, adibidez,
ondoko hau ageri bada:

Jainkoak libra gaitzala...

horren osagarri naturala ablatiboa [-(e)tik] da.
Beraz, izen-andanaren hasieran kasu-marka-
rik ageri ez bada ere, horrek ez digu arazorik
sortzen, izen-andanaren bukaeran ziur
baikaude -(e)tik bat entzunen dugula.

Hots,

Jainkoak libra gaitzala... ...sasi-mediku,
sorgin eta igarleengandik

Edo gerta daiteke, adibidez, adizkiak be-
har dituen elementuetarik bat bakarra eskas
izatea izen-andana abiatzerako, erran nahi
baita:

Konstituzioa aintzat ez hartzea (zer) egotzi
die PPK (nork) EAJ, EA eta EBri (nori)

Hor ere ez dago arazorik komunikazio-
an, perpausako elementu bat bakarra falta

baikenuen adizkia eta bere erreferente guztiak loturik egoteko.

Aipatu behar dut, hondarrean, nahiz badakidan arrazoien artean ez dela hau azkena lehena baizik, inguruko erdaren indarrak garamatzala anitzetan euskararen berezko arau hau urratzera. Izan ere, hizkuntza horiek kontu honetan euskarak baino libreago —eta nahasiago— jokatzan dute. Gaztelaniaz, adibidez, *ahorro de la preposición* izeneko kontzeptua aurki daiteke gramatiketan, izen-koordinazioa arintzeko irtenbide gisa³, eta hori barneratua baitugu, euskaraz ere horrela jokatzan dugu transposizio hutsez, horrek komunikazioan zer dakarren aintzat hartu gabe.

«Epe luzera, honek guztiak lagun diezaieke Estatu Batuak eta ekialde Erdiko alde guztiei, ikustaraziko dielako...» (Euskaldunon Egunkaria, 2001-09-13).

Nire iritziz, batetik klasikoen erabilere-tan oinarriturik, eta bestetik zenbait erabilera berri aintzat harturik, gaur egun ere, urra daiteke gramatikak agintzen duena, argitasuna zaintzen dela betiere, ondoko testu-irrituetan:

3.1. Mendeko izen-sintagmak

Erranen nuke bai erlatibozkoak eta bai bestelakoak sinpletuta erabil daitezkeela, izen-andanako elementuek numero bera baldin badute. Hau da, nik uste dut zuzenak eta argiak direla ondoko hauek:

Tabernetan zerbitzatzen diren ogitarteko, pintxo eta plater konbinatuek osasun-kontrol handiagoa behar lukete.

Abenduaren 6, 7 eta 8ko egunkariekin banatuko da Durangoko Azokari buruzko liburuxka.

Baina elementu batzuk singularrean eta beste batzuk pluralean edo mugagabeen agertuz gero, zuzenago eta argiago da kasu-marka beti paratzea.

Zuk izaten dituzun bizkarreko, hanketako eta belaunetako minak erraz kenduko nizkizuke nik.

3.2. Izenondo koordinatuetan.

Gaur egungo testuetan ez dut aurkitu horrelako adibiderik baina eginen nuke orain ere azken elementuari bakarrik jartzen diogula kasu-marka. Adibidez:

Hutsegite arin, larri eta oso larrietarako zigorrek xedatzen dira atalburu horretan.

Artelan gotiko, errenazentista eta barrokoz josita daude Europako hiri zahar gehienak.

3.3. Gutxienez bi makulu dituzten izen-sintagma askeetan.

Idatzizkoan ez da ageri horrelako erabilera-rik gaur egun. Bi adibide ekarriko ditut, ordea, biak ere ahozkotik jasoak.

Bizkaiko bertsolari-txapelketan, 2000ko abenduan egin zen hartan, finaleko lehiaki-

3. Delako *ahorro* hori kalterako izan daiteke, batez ere hiztegi tekniko edo berezituia erabiltzen denean, ez baita jakiten preposizioa kendua den ala ez. Adibidez, «*En su obra destacan el genio y la fuerza de los colores y las tonalidades utilizadas*» erraten bada, nola ulertu behar da? ...*la fuerza de [los colores y las tonalidades] utilizadas*... ala ...*[la fuerza de los colores] y [las tonalidades utilizadas]*...?

de guztien izenak bildu zituen bertso batean Igor Elortza txapeldunak. Izen guztiak ergatiboan behar zuten baina ez zeukan horretarako tokirik eta beraz kasu-marka jarri gabe utzi zituen izen batzuk tartean. Bitxia da baina telebistako programa batean lan horretan txer saiatuak ziren eta ez zuten lortu izen guztiak bertso bakar batean biltzerik. Elortzaren irtenbidea ikusita, tranpa egin zuela erran zuten telebista-saioan. Tranpa izanzen zen, baina usalege zaharreko tranpa inondik ere.

Hona bertsoa:

Antza dau atzo izan zala-ta
hamar urte pasaturik,
seigarren final batean nago
kanturako prest, zutunik;
Arriagatik Euskaldunara
ta hemen be ez sobra lekurik
Oihane, Iratxek, Aritzek, Juanjok
Fredri, Arkaitz, Unaik ta nik
bakotxak txapel bana daukagu
atzo gabaz amesturik,
ta bakarra jokaturik,
ezin, ba, exxeratu bik,
nik saio on bat egin gura dot,
etsaiak lagun harturik,
txapela galdu behar bada ere
galdu ez daigun bururik.

Bigarren adibidea Irunen entzuna dut. Dantza-txapelketa bat egiten da urtero uztailaren 1ean, eta aurtengoan aurkezleak —herriko adineko gizon batek— honela eman zuen bikoteen herrien berri:

Gaurko bikoteak Errenteriatik, Lezo, Irun, Oiartzun eta Lesakatik etorri dira.

Nik uste dut ahozkoan ez ezik idatzizkoan ere erabil litekeela baliabide hau, batik bat lehen aipatu diren hiru bektore horietako bati, hau da, arintasunari, mesede egiteko. Adibidez,

Oriotarrek, pasaitar, hondarribiar eta zumaiarrek oihu biziak ateratzen zituzten euren traineruaci bultza egiteko.

Baina oso izen-andana luzeetarako edo silaba-multzo handiko kasu-marketarako baino ez nuke irtenbide hau erabiliko.

3.4. Izen-andanak daraman kasu-marka mugagabeen dagoenean.

Klasikoen adibideak gaur egun erabilgarriak dira oso:

Zenbait idazle, kazetari eta irakaslek bat egin dute deialdiarekin.

Gure aitak ez zuen bakerik izaten arlote, zarpail edo ijitoren bat baserrira inguratuz gero.

3.5. *bezalako, gisako* eta horien ordezkotegiturak erabiltzen direnean.

Hauek ere erabilgarriak direla erranen nuke, adibidez:

Argentina, Uruguay, Txile eta horietan negua amaitu da honezkero.

Nahi duzuenean hitz egingen dugu soldata, opor, ordutegi eta gainerakoez.

3.6. Izen-andanak eramane duen kasu-marka lehendik ezaguna edo espero izatekoa denean.

Hemen bi aldagarri daudela iruditzen zait. Batetik, gero datorrenaren berri ematen duen aurrekari bat dagoenean, adibidez:

Lapurdiko hainbat herritan ibili naiz aurtengo udan: Azkaine, Sara, Urrufia eta Pausuan.

Norentzat idatziko duzu koitadu hori, buruarin, jakin-gose eta ergelentzat ez bada?

Bigarrenik, gerta daiteke testuinguruak berak aurreratzea gero datorrena, bai berezko osagarria falta delako, bai adizkiak eskas duen elementu bakarra enumerazioarekin batean etorriko delako:

Kokoteraino nauka bere kexa, imintzio eta hasperenekin!

Zer esan behar diezu ikaskide, irakasle eta gurasoei?

4. Azkena


Gogorazi nahi nuke, azkenik, aipatu berri ditudan hauek ez direla arau, haren salbuespenak baizik. Salbuespenak hartu du artikululu honen zatirik handiena eta beldur naiz ni salbuespenaren aldekotzat hartuko ote nauen batek baino gehiagok. Ez da hala. Konturatzen naiz, ordea, batetik, gure klasikoen

zenbait perpaus oraingo gure euskararen ikuspegitik, errepikakor, luze eta aspergarri egiten zaizkigula eta, bestetik, gaitz horien aurkako sendagaiak klasikoei beraiek eman dizkigutela, neurri handi batean.

Oreka bilatzea da kontua, beti bezala. Literatur itzulpenetan, adibidez, gramatikaren arauak estuegi jarraituz gero, alor honetan bederen, testuaren erritmoa moteldu, gozakaiztu egiten ahal da, eta nahi litzateke jatorrizkoaren doinuari eusteko trikimailuren bat. Erruz emanak dira artikululu honetan horrelakoak. Zein noiz komeni den argi ikustea da orain kontua, itzultzaile-idazlearen esku gelditzen dena. Sendunak jakinen du, noski, hemen azaldu direnei zuku ateratzen.

Hondarreko, eskerrak eman nahi dizkiet EHUko literatur gordailu birtualeko lanak prestatu eta argitaratu dituztenei eta Xenpe-lar dokumentazio-zentrokoiei. Mila esker.





BIBLIOGRAFIA

- ADEMA, G. *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzaila* (1877), Ales Bengoetxearen edizioa, <http://www.vc.ehu.es/gordailua/Escualdun.htm>
- AGIRRE, Tx. *Kresala* (1906), Josu Lavinen edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/Kresala_1.htm
- AXULAR, P. *Gero*, Josu Lavinen edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/Axular_1.htm
- DUVOISIN: *Laborantzako liburua* (1858), Josu Lavinen edizioa, <http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laborantzako.htm>
- ELIZANBURU, J. B.: *Piarres Adame* (1888), Josu Lavinen en edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/Elizanburu_1.htm
- ELIZANBURU, M.: *Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki* (1890), <http://www.vc.ehu.es/gordailua/ElizanburuFHEIL.htm>

- FRAI BARTOLOME: *Euscal-Errijetaco olgueeta ta dantzeeen neurrizco-gatz-ozpinduba* (1816), Josu Lavinen edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/Bartolome_1.htm
- KARDABERAZ, A.: *Euskeraren Berri Onak* (1761), Aitor Arana Luzuriagaren edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/berri_onak.htm
- INDABURU, M.: *Haizegoa*, Pamiela, Iruñea, 1994.
- (Junta zuzentzallia): *Euscaldunen Peregrinacina Erromara*, Bilbo, 1905.
- LAPHITZ, F. *Bi saindu hescualdunen bizia* (1867), http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laphitz_1.htm
- LEIZARRAGA, *ABC* (1571) Josu Lavinen edizioa, <http://www.vc.ehu.es/gordailua/ABC.htm>
- LIZARDI, X: *Itz-lauz* (1934), http://www.vc.ehu.es/gordailua/Itz_lauz.htm
- MENDIBURU, S.: *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, Bartholome Riesgo Montero, Donostia, 1747
- MENDIBURU, S: *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, Pedro Joseph Ezquerro, Iruñea, 1751
- MENDIBURU, S: *Jesusen Bihotzaren Congregacioco Reglac* (aurreko liburuarekin batean argitaratua), Pedro Joseph Ezquerro, Iruñea, 1751
- MIKELESTORENA, J.A.: *Cerura nayduenac ar dezaquean vide erraza* (ca. 1750), Ales Bengoetxearen edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/Mikelestorena_1.htm
- MISTRAL, F.: *Mireio*, ORMAETXEA, N. (Orixe) (itzultzaile); OTAEGI, J. (edizio-prestatzaile), Kriselu, Donostia, 1990
- MITXELENA, K.: *Idazlan Hautatuak*, Mensajero, Bilbo, 1972
- MOGEL: *Peru Abarka* (1881), Josu Lavinen edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/Mogel_1.htm
- MOKOROA, J. M.: *Ortik eta Emendik - Repertorio de locuciones del habla popular vasca*, Labayru-Eusko Jaurilaritza-Etor, Bilbo, 1990
- TARTAS, J.: *Oña hilceco bidia* (1666), Josu Lavinen edizioa, http://www.vc.ehu.es/gordailua/tartas_1.htm
- «Argia egunerokoa», «Euskaldunon Egunkaria», «Gaztetxulo», «Irutxulo» eta «Zabalik» prentsa-argitalpenak.